



Curriculumama

Euskal Eskola Publikoa **Gaur Bihar**

IV. ZATIA

EUSKAL HERRIRAKO CURRICULUMAREN ARLOAK



2.-CURRICULUM ARLOEN ANTOLAKETA ETA EGITURA

Ondorengo lerroetan gure curriculum proposamena eratzten duten oinarrizko elementuak adierazten dira. Euskal Herrirako Curriculumaren osagarri moduan proposatzen diren arloak kontzeptuzko arkitektura logiko eta sistematiko baten arabera dauden diseinatuta. Curriculum arloen antolaketak ondoko elementu hauek kontuan izan behar dituela uste dugu:

a) Sarrera

Sarrera ez da gauza hutsala. Bertan, arloa bere berezitasun adierazgarrienak zehaztuz aurkeztu nahi da hasteko. Gainera, arlo bakoitzeko diskurtsoa eta orientabide pedagogikoak lerratzen dituzten abiapuntuak eta ideia-ardatzak azaltzen dira. Planteamendu orokorra funtsezko elementua da ondoren etorriko diren garatu beharreko gaitasunak, eman beharreko edukiak eta ebaluaketa egiteko irizpideen definiziorako. Azkenik, puntu ilunak, alderdi anbiguoak eta oraindik argitzeke dauden elementu zalantzaragiak azaltzeko ere erabili da atal hau.

b) Arloko gaitasunak

-Gaitasuna inguru berezi batean aplikatutako ahalmena da. Ekintza-eremu batean "jakintza aplikatua" sustatzen da. Lehenago esaten zen bezala, ezagutza arloetan adierazitako trebetasun anitzak sei tipologiaen arabera sailkatu ditugu: kognitiboak (pertsonaren garapen mentalari eta intelektualari dagozkionak), gorputz-garapena, osasuna eta ekologiarekiko errespetua (ongizate fisikoaren, prebentzioaren, ingurumenaren... inguruan), afektiboak (baloreen garapena eta gizabanakoaren nortasuna sustatzen dute), komunikatiboak (lengoaia eta adierazpen mota ezberdinak sustatzen dituzte), gizarteratzekoak (zenbait taldetan eta oro har gizartean pertsonaren integrazioa errazten dute) eta ekintzaitzarekin lotutakoak (etengabeko hobekuntzako proiektuei eta prozesuei ekiteko trebetasunak).



c) Edukiak

Edukiak, hezkuntzaren ikusmolde berri honetatik "ikaslearen gaitasunak gartzeko helburuarekin irakaskuntza-ikaskuntza zereginak, jarduerak eta estrategiak diseinatzeko erabiltzen ditugun errealitate sozialaren eta kulturalaren elementu adierazgarri sorta (kontzeptuak, gertaerak, prozesuak, jarrerak...)" moduan definitu daitezke.

Edukiak bitartekari bihurtzen dira eta ikaslearen gaitasunen garapena dute helburu. Atal honetan ohiko hiru tipologiak bereizten dira:

- Kontzeptuzkoak: hezkuntza arloan landuko diren datuei, datei, gertaerei, legeei, teoriei, printzipioei, eta abarrei buruz
- Prozedurazkoak: prozedurak aurrez zehaztutako helburua burutzera bideratutako ekintza ordenatuak dira.
- Jarrerazkoak: baloreen, ohituren, pauten, eta abarren arabera.

Ikastetxeetan (eta gizartean) bizikidetzat jasaten ari den egoera zailaren aurrean, jarrerazko edukiei enfasi berezia jartzea bidezkoa dela erabaki da. Kontzeptuak eta prozedurak curriculumean oso garrantzitsuak direla zalantzarik gabe onartzen da. Halere, ikastetxeetako hezkuntza praktikan jartzerakoan jarreraren garapena, eta batez ere, diziplinen arteko curriculum ikuspegiak, ez daude ez ondo finkatuta ez islatuta.

d) Ebaluazio irizpideak

Atal honetan trebetasun bat lortzea azaltzen eta justifikatzen duten adierazleak identifikatu nahi dira. Argitu beharreko galdera ondokoa da: Zein jardueren, prozeduren eta trebetasunen bitartez egiaztatzen da ikasleak gaitasun bat menderatzen duela? Gai horri buruz proposatutako gaitasunei eta trebetasunei dagokionez ebaluazio irizpideek ebidentzien onarpena errazten dute.



Lehen mailako etapan, ebaluazioa, soilik, etengabekoa eta globala izan behar da, eta curriculum arlo guztietan ikasleak egindako aurrera pausuak errespetatuko ditu. Halere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikaslearen errendimenduaren eta aurreratze orokorraren balioespena etengabe baina bereizita egingo da.